





ATX TEATROA

Kaskarot



estreinaldia


2019KO ABENDUAK 8
SOCIAL ANTZOKIA, BASAURI



Two large decorative circles in the top right corner. The left one has light blue diagonal stripes, and the right one is teal with white polka dots.


You are not your age, nor the size of clothes you wear,
You are not a weight, or the color of your hair.
You are not your name, or the dimples in your cheeks.
You are all the books you read, and all the words you speak.
You are your croaky morning voice, and the smiles you try to hide.
You're the sweetness in your laughter, and every tear you've cried.
You're the songs you sing so loudly when you know you're all alone.
You're the places that you've been to, and the one that you call home.
You're the things that you believe in, and the people whom you love.
You're the photos in your bedroom, and the future you dream of.
You're made of so much beauty, but it seems that you forgot
When you decided that you were defined by all the things you're not.

Not by Erin Hanson



PROIEKTUAREN ITXAROPENA

Distopia ardatz nagusitzat duten ikuskizunetan erabiltzen den estetika umeentzako baliagarria den galdetzen genion gure buruari. Baiezko biribila jasotzen genuen une oro, izan ere, umeak zeharo ohituta daude marrazki bizidunetan zein pelikula eta komikietan horrelako ereduak ikusteaz. Are gehiago, espektakulu horietan egiten den hizkuntza trataera zeharo bat dator umeek erabiltzen duten euskararekin eta horrela ez bada, ondo legoke horrela izatea. Familia osoari zuzendutako ikuskizun honetan umeak izango dira publiko nagusia, hau da, beraientzako egindako ikuskizuna izango da. Beti ere, umeekin batera doazen nagusiak albo batera utzi gabe.



OBRAKEN TEMATIKA


Erin Hanson-en poemak erakusten digunez, akaso, gaur egungo tragediarik handiena: nola ibiltzen garen etengabe gure buruak definitzen, besteen pare jartzen. Eta nola ahazten dugun gure esentzia, irudimena, berezkotasuna, errebelia...beti ere, mundu lau honen alde.

Baina adi, mundu lau honetan bizi gara, eta abstrakzio osoa proposatu beharrean, bi izaten ezberdinen batzea irudikatu nahi da, ondokoa entzutea, ikastea.

Obra honen helburua bizitzaren ikuspegi alternatibo bat aurkeztea litzake. Umeak inozentziaren iturri izanda, gauzei beste modu batean begiratzeak aurrera egiten laguntzen digula litzake aldarri nagusia, hala hausten direlako hain errotuta ditugun aurreiritzi eta indar guztiak.

Biziak jarritako erronka bati ohiko tresnekin erantzun beharrean, kolore berriak aurkeztea.

Funtsean, ohiko korranteetatik aldentzearen onurak azpimarratu nahi dira, eta gauzen izatea norbere begiek osatzen dutela adierazi, betiere, gure gizartea gobernatzen duten botere eta joera ezkor horiek agerian utziz.




TESTUINGURUA

Ezberdina izatearen aurreko bildurra, lehenengo harremanen lotsak eta "ni naizen hori" homonormatibitatearen aurrean defendatzea bezalako gaiak jarriko dira mahai gainean, familiari guztiari zuzendutako ikuskizun honetan.

Izan ere, gure pertsonaia nagusiaren izena KASKAROT izatea ez da kointzidentzia....

Iparraldeko eta hegoaldeko aktoreak egongo dira ezena gainean, ikuskizuna honen jatorria eta helburua ez delako ulertzen mugaren alde bietan lan egiten ez bada.

Ulertzen dugu helduok eta umeok ditugun arazoak berdintsuak direla, bakoitzak bere adinaren testuinguruarekin noski, baina berdinak. Honekin baztertu egin nahi dugu umeen inteligentzia gutxiezte.




SINOPSISIA

Agure batek istorioa bat kontatuko du.
Aner gizarte distopiko batean bizi da, non dantzatzea
debekatuta dagoen.

Anerri izugarri gustatzen zaio dantza egitea eta horrek
arazo larriak sortzen dizkio.

Kaskarot Anerren "alter egoa" da. Bere ingenio eta
zentzuaren bidez, Anerri erakutsiko dio bere egoerari
buelta ematen eta arauen aurrean bere adierazpen
askatasuna lehenesten.




FITXA TEKNIKOA

Publikoa familia ikuskizuna

Iraupena 50minutu

Formatua Ertaina




PERTSONAIEN TRATAERA

Kaskarot eta Aner-en abentura da hau. Baina ez dira bi ume soilik, gizatasunak kolore ezberdinetan banatzen dituen izateko modu ezberdinak dituzte soinean. Bata bestea baino zeragoa da, eta bestea, ez hain zera.

Aner

Denok gara Aner. Denok gara 10 urteko ume on, inuxente eta bihurri bat. Esandakoari men egitearen onurak bezainbeste ezagutzen ditu batzutan esandakoa ez betetzearenak. Baina ikasteko gogoia ere badu. Funtsean, ume bat besterik ez da.






Kaskarot

Denok gara Kaskarot. Kaskarot Aner-en “alter egoa” da. Kaskarot jatorri ezezaguneko giza talde bateko kidea zen, Lapurdiko kostaldean, bereziki Donibane Lohizune, Ziburu eta Urruñan, bizi zena. Teoria desberdinen arabera, ijitoen azpitalde batekoak, hots, mairu eta ijitoen nahasketatik sortuak edo agot eta ijitoen nahasketatik sortuak lirateke.

Definizioa honen gaur egungo neskato bat da gure Kaskarot. Pertsonaia askea bai, baina bere irudimen eta poztasun hori elkarbanatzeko arazoak dituen. Bere ezaugarrien artean dantzarako zaletasuna eta kolore biziko jantziak aipa daitezke.



LAN TALDEA

Idazlea Gartxot Unsain Letona

Zuzendaritza ATX Teatroa

Antzezleak Maryse Urruty, Natxo Montero,
Jon Koldo Vázquez eta Gartxot Unsain Letona

Zuzendaritza teknikoa ATX Teatroa


Ekoizpena ATX Teatroa

Musika Gartxot Unsain Letona

Eszenografia ATX Teatroa

Jantziak Marodi Sorkuntzak

Argazkiak Ainhoa Resano






ATX Teatroa




Atx Teatroa 2010ean sortu zan. Filosofia argi daukagu, distopikoa eta insurgentea dan euskal kultura. Baina Atx Teatroa askoz gehiago be bada. Gure lantaldeak antzerki sorkuntzako alor guztietan egiten dau behar: ikuskizunen sorkuntza, eszenografia tailerra, teknika-lanak, gure imaginarioaren barruan sartzen diren beste konpainia euskaldunen ikuskizunen banaketa lanak,...



Gartxot Unsain
IDAZLEA/MUSIKA




Ikus entzunezko komunikazioan lizentziatua omen naiz. Baina bizitzak erakutsi dit sormena eta gogoia direla aukeren iturri handienak. Idazten, itzulpengintzan, eta nire pentsamenduak abesti bihurtzen hamarkada bat pase daramat, irratian zein telebistan ere aritu naiz, gehienetan nire komunikatzeko gogoak bultzatuta. Barruan sentitzen den guztia modu landu eta artistikoago batean plazaratzea da nire eguneroko erronka, eta musika talde zein hauekin lotutako proiektu ezberdinak lehentasuna diren arren, beti nabil sortzeko modu berrien bila. Bide honetan hitzekin harreman berezi bat sortu dut eta esango nuke nire baliabide esanguratsuena direla, espresatzea mundu hau ulertzeko modu eraginkorrena dela sinisten dudalako.



Maryse Urruty
AKTOREA



Maryse Urrutyren lotura antzerkiarekin hasi zen lizeoan, Antton Lukuri esker. Gero, Zientza politikoak ikasi zituen baina taularen deia berriz entzun zuen eta L'Ecole du Jeu-Delphine Eliet antzerki eskolara joan zen. 2015 an, 13R3P konpainia sortu zuen Frantziako iparraldean etahan Il était une fois l'Internet / Behin Bazen Internet eta Bureau des Exils ikusgarriak atera zituen, bai aktore, idazle eta taula zuzendari gisa. 2017 an, Euskal Herrira itzuli zen eta Cyranoren pertsonaiari gorputza eman zion Hecho en Casa konpainiaren Bere Izpiliku sasi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen ikusgarrian. Ordutik, Baionan bizi da eta Jour de Fête, Entre les Gouttes eta Itzuli konpainiekin parte hartzen du.



Natxo Montero
AKTOREA




Elektrizitatea ikasi zuen. Gaztetik, dantza munduan hasi zen, lehenik eta behin euskal dantza tradizionallean eta geroago dantza garaikidean, Euskal Herri, Brusela, Bartzelona, Lisboa eta Frantzia.

Interpretatzaile gisa lan egin du dantza eta antzerki konpainia hauetan:
Organik, Steak Tartar, Pisando Ovos, Cie Sofie Saller, Felix Ruckert, Cia Francoise Murcia, Cie Rialto Fabrik Nomade, Galiziako Coreogàfico Zentroa, RUEMANIAK-SRA POLAROISKA kolektiboa , Cia Licenciada Sotelo, LAURENTZI, Cía Joan Catalá.

2008an Natxo Montero_danza konpainia sortu zuen, zeinekin arrakasta handia izan duen Euskal Herri, estatu eta nazioarte mailan.

Sortzaile, koreografo eta dantzari bezala *Naranjas del tiempo*, *CUADRA-T* (2008ko Madrilgo Koreografia Lehiaketan hiru sari jaso zituen), *FLIGHT 6408* eta *Carni di prima qualità* (2. saria 2009ko Madrilgo Koreografia Lehiaketan) eta *BARBECHO* eta *BARBECHO URBANO* lanak zuzendu ditu.




Jon Koldo Vazquez
AKTOREA



Bilbo, 1978. Bizkaiko Antzerki ikastegian diplomatua.

2002az geroztik aktore lanak sormen propioekin tartekatzen ditu. *Pikor Teatro*-ren eskutik hasi zuen bere ibilbide profesionala, *Zapaldu marra*, *Jokoaut!* eta *XL Town* antzezlanekin. 2008atik aurrera, *Markeliñe* konpainiaren aktore taldeko partaide da, eta gaur egun bere obrak nazioartean banatzen ditu. *Kontukantari* ikuskizunetan aktore, idazle eta zuzendari lanak egiten ditu. Beste konpaniekin egindako lanen artean Arriaga antzokiak ekoiztutako *Uda gau bateko ametsa* edo Petit Liceu-ren *Allegro Vivace* nabarmendu ditzakegu.

2012an *MAuMA* osatu zuen Atxarte Lz de Munain eta Marta Alvarez-ekin batera beraien proiektuak sortzeko plataforma gisa: *Martinak bere istorioa aurkitu zuenekoa* (2012), *#ElkarrekinBakarrik* (2013) eta +, *Positibo* (2015)




MEDIAZIOA

Mediazioak oso garrantzitsuak dira edozein ekoizpen artistikoan. Ikuskizuna produktu bat izatetik, bizirik den zerbait izatera pasatzen delako, eta oro har, ikuslea hobeto hurbildu daiteke ikuskizuneko forma eta edukira.

Atx Teatroak proposatzen du, ikastetxeentzako errepika irekiak egitea, non ikasleek gertutik bizi ahal duen antzerki baten ekoizpen prozesua eta aktore zein lan-talde osoarekin solasaldi bat eduki ahal duen.

Modu honetara ikuslea ez da gehiago agente pasiboa, aktiboa baizik, eta neurri batean sorkuntza prozesuaren parte bat gehiago bihurtzen da.



KRONOGRAMA

TESTUA*

TESTUAREN LANKETA

EGONALDIAK

ESTREINALDIA

Maiatzean bukatu

Apirila-iraila

Ekaina (Bilbo)


Urriak 21-31 Hameka (Harri Xuri)

Azaroak 4-15 Chimeres-Biarritz

Abenduak 2-5 Basauriko Antzokia

Abenduaren 8a (Basauriko Antzokia)

*Testua maiatzean amaituko dugu, horretan lanean gaude momentu honetan.



INFORMAZIO GEHIGARRIA

Aurkenerena, J. (2016-03-18) Kaskarotak Lapurdiko gizartean eta folklolean. NAIZ. <https://kazeta.naiz.eus/es/iritzia/articulos/kaskarotak-lapurdiko-gizartean-eta-folklolean>

Lapurdiko baleazaleek garrantzi handia ukan zuten XVI. eta XVII. mendeetan. Ternua eta Kanadako itsasertzetara egiten zituzten itsas ibilaldiak aberastasun iturri izan ziren Lapurdiko itsas hegiko biztanleentzat. 1713 eta 1715 urteen artean hitzartu zen Utrech-eko Itunak jarduera honen gainbehera ekarri zuen, Frantziak Badia Handia (Hudson), Ternua eta Akadiako lur itsas bazterrak Ingalaterra garailearen esku utzi behar izan baitzituen. Donibane eta Ziburu aldeko arrantzaleek izugarri kolpe handia jaso zuten galera horrekin, balea eta makailua baitziren heien bizimoduaren zutaberik sendoena.


Gainbeherak ondorio zuzenak ukan zituen Donibane, Ziburu eta Zokoa aldeko biztanlerian. Bizi-iturria agortuta, ainitzek hiri hauek utzi eta beste lurraldeetara abiatu behar izan zuten lan bila. Honek despulazio ikaragarri handia ekarri zuen. Donibane Lohizunek XVII. mendean 12.000 biztanle inguru zituen, 1730ean 9.500 inguruko populazioa zuen, 1730ean 9.500 zituen, 1755ean 3.367, eta 1768an soil-soilik 2.498 biztanle. Ziburun eta Urruñako hainbat auzotegitan ber gauza gertatu zen.



Etxe ainitz hutsik, abandonaturik geratu ziren, eta nonbaitetik etorri ziren kaskarotak hutsik ziren etxe horietan aterpetu ziren. Baina nor ziren kaskarotak eta nondik zetozen? Joseph Nogaret idazlearen aburuz, Portugal eta Espainiatik igorritako jendeak ziren. Heien artean baziren moriskoak, buhameak, agotak..., hau da, estatu bateratuak eraikitzeko ezarri zituzten batasun eta odol garbiko irizpideetatik kanpo gelditzen ziren giza taldeak.

Hastapenetan, bertako euskaldunek ez omen zuten jende hauen etorrera begi onez ikusi eta kaskarot izenaz deitu zieten. Urte luzeetan bazterketak eta igortze aginduak jasan behar izan zituzten arren, azkenean, kaskarot talde finkoak gelditu ziren bizitzen Donibanen, Ziburun, Urruñan... Heien mintzaira eta ohiturak luzaz atxiki zituzten, baina berehala euskaraz ikasi zuten eta honek integrazio prozesua erraztu zien.

Lehen aipatu dudan despulazioa dela eta, erran behar dugu bestelako faktore edo eragileak ere izan zirela. 1636. urtean, espainol armada Donibanen sartu eta su eman zion hiriari. Biztanleak Baiona aldera itzuri eta ez ziren hirira itzuli 1637ra arte, hau da, espainolak handik igorri zituzten arte. Ziburun ere gauza bera gertatu zen. 600 etxe ziren urte hartan eta espainolek 437 erre eta birrindu zituzten. Zalantzarik gabe, gertaera latz hauek zer ikusi handia izan zuten kostaldeko hiri hauek ezagutu zuten biztanle-gabetze prozesu azkarrarekin.




Hasiera-hasieratik arrantzaren jarduerarekin loturiko lanbideetan aritu ziren. Gizonezkoak arrantzale eta marinel aritu ziren eta emaztekiak arrain-saltzaile. Azken hauek urrutira joaten ziren arrainez betetako saskia edo otarra buru gainean zeramatzela. Baiona aldean ainitz saltzen omen zuten eta oihuka, buru gainean zeramaten arrain freskoa iragarritz, ibiltzen ziren karrika batetik bestera.

Kaskarotek euren arau eta legeak zituzten eta horien arabera antolatzen ziren. Elizkoiak ziren, batez ere, emazteak, eta Bordagainen heien eliza zeukaten. Gainerako biztanleekin harreman onak zituzten eta aski integratuak ziren XVIII. mendeko Lapurdiko gizartean.

1727an eta 1802an hainbat lege atera zituzten buhameen aurka, baina bietan kostaldeko lapurtar agintariek etxerik gabeko buhameen eta etxeetan bizi ziren kaskaroten artean bereizi zuten. Ondorioz, lege horiek ez zieten kaskarotei ezertan eragin.

XIX. mendean gainerako lapurtarrekin nahasi ziren eta XX. menderako kaskaroten kontua iraganeko oroitzapena zen. Pittaka-pittaka kaskarot hitza zabaldu egin da eta gaur Donibane eta Ziburuko biztanle guztiei deitzeko erabiltzen da.




Kaskaroten jatorria ez bada bat ere garbia, gauza bera gertatzen zaigu beren izenarekin. Era guztietako teoriak diren arren, ez dakigu zehazki nondik datorren. Ainitzek kaskarotak agotekin lotzen dituzte eta izena ere hortik datorkiela erraiten dute. Jacques Ospital idazle donibandarrak dioenez, behin donibandar zahar bati entzun omen zion haren ustez kasta arrotza hitzetatik zetorrela. Kaskarot kaskar hitzetik datorrela erran izan dute, kaskarotak itxura kaskarrekoak baitziren, mehararak, eta horregatik deitu ziten kaskarotak, hau da, kaskar + -ot, kaskar ttiptiak alegia. Kaska arrotzak eta kaska arotzak hitzetatik datorrela defendatu dute beste batzuek, garai bateko agotak biziki arotz trebeak baitziren.



Emazte kaskarotak arrain-saltzaileak ziren, hitz jario handikoak. Oihuka ibiltzen ziren arraina saltzen. Horregatik, idazle zenbaitek diote Baiona aldeko kaskoinek kaskarot deitzen zietela, hau da, kaskoien mintzairaz, kalakari edo berritsuak.

Thierry Truffaut-ek “Joaldun et kaskarot” izeneko liburu ederrean bestelako teoria dakarkigu plazara. Badira kaskabil edo kaskabilo izeneko zintzarriak, eta kaskarotek heien jantzietan ezartzea maite zutenez, baliteke hortik etortzea euskaldunen eman zieten izena.

Modu batean zein bestean, etimologia bat zein bestea, gauza da kaskaroten oroitzapena guztiz errotua gelditu dela lapurtarren iruditeria kolektiboan.



LAGUNTZAILEAK



ATX Teatroa

(+34) 657 712 844

(+34) 638 324 105

atxteatroa@atxteatroa.eus

www.atxteatroa.eus

